

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIBARRI GANBOAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Uribarri Ganboako (Araba) hondakin urak arazteko, euri uren saneamendurako, elektrizitatea, argiteria eta telefonia kanalizatzeko eta kaleak zolatzeko proiektuan egiteke dauden obrek eragindako ondasun eta eskubideen eta haien titularren banan-banako zerrenda onesteko eta ondasun eta eskubide horiek desjabetze aldera okupatzeko beharra adierazteko prozedura**

Uribarri Ganboako Kontzejuak, 2020ko urriaren 27an egindako bilkuran, Arratzua-Ubarrundiako 1. poligonoko 96. lurzatia nahitaez desjabetzeko, zortasunak eratzeko eta aldi baterako okupatzeko prozedurari dagokionez, honako erabaki hauek hartu zituen, besteak beste, aho batez:

a) Prozedura hau ebazteko eta jakinarazteko epea hilabete eta erdi luzatzea erabakitzen da.

b) Ezetsi egiten dira jendaurreko informazioaren izapidean egindako alegazioak, Nélida Gómez Obregón letraduaren 2020ko urriaren 23ko txosten juridikoan azaldutako arrazoietan oinarrituta.

c) Behin-betiko inplizituztat jotzen da, nahitaezko desjabetzapenaren ondorioetarako, onura publikokotzat jotzea 'Uribarri Ganboako (Araba) hondakin urak arazteko, euri uren saneamendurako, elektrizitatea, argiteria eta telefonia kanalizatzeko eta kaleak zolatzeko proiektua'n (Obra eta Zerbitzuen Foru Planean jaso) aurreikusitako obrak, proiektu horretan egiteke dauden obrak egikaritzeko.

d) Behin betiko onespina ematen zaio ondoko proiektu honetan jasotzen diren eta egiteke dauden obrak egikaritzeko okupatu behar diren ondasun eta eskubideen eta horien titularren banan-banako zerrenda zehatzari: 'Uribarri Ganboako (Araba) hondakin urak arazteko, euri uren saneamendurako, elektrizitatea, argiteria eta telefonia kanalizatzeko eta kaleak zolatzeko proiektua'. Hona hemen zerrenda hori:

FINKAREN ZK.	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA APROVECHAMIENTO HIRI AP./URBANO LANDA A./RUSTICO	ERAGINDAKO ONDASUNA BIEN AFECTADO SARRIDEA/ACCESO HAND. SARRID./ACCESO AMPLIACION E.I.	ERAGINDAKO AZALERA M2		
	POLIGONA	LURSALA				BEHIN-BETIKOA	B.	ZORTASUNA
Nº ORDEN	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO			SUPERFICIE AFFECTADA M2	TEMPORAL	SERVIDUMBRE
1	1	PARCELA 96A	ARRATZUA-IBARRUNDIA	HIRI AP./URBANO		0	34	15
2	1	96B	ARRATZUA-IBARRUNDIA	LANDA A./RUSTICO	HAND. SARRID./ACCESO AMPLIACION E.I.	33	98	8

Arratzua-Ubarrundiako udalerriko 1 poligonoko 96 katastro lurzatiak (A eta B azpilurzatiak) erregistro finka bakarra osatzen du:

– Erregistroko datuak: 758 erregistro finka (Agiritegiko 4061 tomoa, Arratzua-Ubarrundiako udalerriko 16 liburua, 74 orria, Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroa).

– Titularra: María Jesús Bilbao Martínez.

– Kargak: Gasteizko eta Arabako Aurrezki Kutxaren aldeko bi hipoteka.

e) Behin betiko onesten da “Uribarri Ganboako (Araba) hondakin urak arazteko, euri uren saneamendurako, elektrizitatea, argiteria eta telefonia kanalizatzeko eta kaleak zolatzeko proiektua”n egiteke dauden obrak egikaritzeko ondasunak eta eskubideak okupatzeko premia zehatza.

f) Erabaki da premiazko prozedura bidez izapidetzea eta, horretarako, era berean, erabaki da Eusko Jaurlaritzari eskatzea adieraz dezala desjabetzeak, zortasunak ezartzeak eta lurrak okupatzeak eragindako ondasunen premiazko okupazioa. Okupatzeko premiaren justifikazioa Uribarri Ganboako hiriguneko saneamenduaren egungo arazoak konpondu eta Arabako Foru Aldundiak emandako epean konpondu beharra da.

g) Erabaki hauek ALHAOn, probintzian gehien saltzen diren egunkarietako batean, eta Arratzua-Ubarrundiako Udaleko eta Kontzejuko iragarki taulan argitaratzea, eta erabaki horiek banan-banan jakinaraztea desjabetze prozeduran interesa dutenei.

h) Errejidore-lehendakariari ahalmena ematea erabakitakoa garbi eta behar den bezala burutzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko”

Aipatutako erabakiak behin betikoak dira administrazio bidean, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, egintza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Hala ere, erabaki horien aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu zuen organoari, argitaratu eta hilabeteko epean, aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik. Baldin interesdunari jakinarazpena bide bat baino gehiagotatik egiten bazaio, jakinarazpen datatzat hartuko da egiten den lehena.

Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (APEL) 41.7, 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera; hala ere, egoki iritziz gero, interesdunek beste edozein egintza edo errekurtsu abiarazi ahal izango dute beren eskubideak aldeztuko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Uribarri Ganboa, 2020ko urriaren 28a

*Lehendakaria*

*MERCEDES URCARAY GARCÍA*